



Uztailerako gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza prestatu du Andoaingo Udalak

- **Osasun baldintzak bermatzea ezinezko delarik, Goazen Jolastera bertan behera geratuko da 2020ko Udan, eta honen ordezko proposamena prestatu da: Gazte Lokala eta Leitzaran abentura ekimena**

COVID19aren osasun alarma egoera amaitu ondoren, eta normaltasunera itzulera mailakatuan gauden arren, Udalean ohikoak ziren zerbitzu eta jarduerak oraindik baldintzatuta jarraitzen dut. Tartean, haurren sozializazio eta euskararen sustapenerako GOAZEN JOLASTERA ekimena, osasun baldintza guztiak bermatzea ezinezko egiten denez bertan behera uztea erabaki dena.

Hau dela eta, sustapen ekonomiko eta gazteri sailak aukera ezberdinak landu ditu gazteen aisialdi eskaintza osatzeko, eta honako 2 aukera eskainiko zaizkie andoaindarrei:

- Gazte lokala: 12 urtetik gorakoentzat eta hitzorduarekin.
- Leitzaran abentura: 2007-2010 urteetan jaiotakoentzat.

Gazte lokalari dagokionez, segurtasun neurriak eta aforoen kontrola modu ordenatuan kudeatu ahal izateko, aurrez hitzordua eskatuz ipiniko da martxan. Modu honetan, gazte taldeak osatuz irteerak edota ekintza ezberdinak martxan ipintzen joango direlarik.

Leitzaran abentura ekimenari dagokionez, Leitzaran bailaran emango den udaleku irekia izango da. Udalekua bi hamabostalditan banatuko da uztailak 6an hasita. Bertan, kirol ezberdinak uztartzeko aukera izango da: orientazioa, bizikleta, piraguismoa, eskalada, arko tiroa, ploging...

Ekimen honen prezioa 77 eurotako izango da hamabostaldi bakoitzeko. Izena emateko epea, hurrengo ostirala 27tik uztailak 1 bitartean egin ahal izango da on line Andoaingo udaleko web orrian www.andoain.eus

Izen emate guztien artean, dauden plaza baino gazte gehiago izena eman badute, zozketa egingo da.

Azkenik, herriko ludoteka uztailaren 6an irekiko da aste betez, elkar ikusi eta kurtsoari amaiera emateko.



El Ayuntamiento de Andoain prepara para julio una oferta de ocio dirigida a los jóvenes

- **No siendo posible garantizar las condiciones de salud, Goazen Jolastera queda suspendida en el verano 2020 y se ha preparado una propuesta alternativa: Gazte Lokala y la iniciativa Leitzaran Aventura**

Una vez finalizado el estado de alarma sanitaria del COVID19, y a pesar de que estamos en un retorno gradual a la normalidad, los servicios y actividades que eran habituales en el Ayuntamiento siguen condicionados. Entre ellos, la iniciativa Goazen Jolastera para la socialización de los niños y la promoción del euskera, ha tenido que ser suspendido, al ser imposible garantizar todas las condiciones sanitarias.

Por este motivo, el departamento de promoción económica y juventud ha trabajado diferentes opciones para complementar la oferta de ocio juvenil, y se ofrecerán a los andoaindarras 2 opciones:

- Gazte Lokala: para mayores de 12 años y con cita previa.
- Leitzaran Aventura: para los nacidos en los años 2007-2010.

En cuanto al **Gazte Lokala**, para poder gestionar de forma ordenada las medidas de seguridad y el control de los aforos, se pondrá en marcha el servicio solicitando cita previa. De esta manera, formando diferentes grupos de jóvenes, se irán poniendo en marcha salidas y/o diferentes actividades.

En cuanto a la iniciativa **Leitzaran Aventura**, será un campamento abierto que se desarrollará en el valle Leitzaran. El Udaleku se dividirá en dos tandas, una por cada quincena a partir del 6 de julio. En ella se podrá combinar la práctica de diferentes deportes: orientación, bicicleta, piragüismo, escalada, tiro de arco, ploging.

El precio de esta iniciativa será de 77 euros por quincena. El plazo de inscripción se podrá realizar online del 27 al 1 de julio en la página web del Ayuntamiento de Andoain www.andoain.eus

Entre todas las inscripciones, si se han inscrito más jóvenes que plazas existentes, se realizará un sorteo.

Por último, la ludoteca de la localidad se abrirá el 6 de julio durante una semana para verse las caras y poner fin al curso.

Andoain, 27 de junio de 2020